8.5.2. Enpresak aurkeztutako datuak eta gorabeherak faltsuak badira, kontratua suntsiaraz daiteke, hala badagokio, pertsona edo enpresa esleipendunari egotz dakiokeen ez-betetzeagatik. Halakoetan, osatutako behin betiko fidantza galduko da ala, bidezkoa bada, osatu ez delako horren balioaz kalte ordaina ordaindu beharko da.

8.5.2. La falsedad de los datos y circunstancias presentados por la empresa puede ser causa de resolución del contrato, en su caso, por incumplimiento imputable a la persona o empresa adjudicataria, con pérdida de la fianza definitiva constituida o, en su caso, indemnización por valor de aquélla, si no se ha constituido.

8.5.3. Eskatutako dokumenturen bat aurkezten ez bada edo eskatutakoarekiko modu desberdinean eginez gero, behin betiko ez da onartuko.

8.5.3. No presentar alguno de los documentos exigidos o su presentación en forma distinta a la requerida dará lugar a la inadmisión definitiva del mismo.

8.5.4. Hurrengo proposamenak ez dira onartuko:

- Kontraesan garrantzitsuak, ahazteak, akatsak edo urradurak dituztenak, horien ondorioz administrazioak eskaintza kontuan hartzeko oinarrizkotzat jotzen duena argi eta garbi ezin bada ezagutu.
- Baldintza teknikoen agirian eta administrazio baldintzen agirian aipatutakora egokitzen ez direnak.
- Aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- Lizitazioaren gehieneko oinarria gainditzen dutenak.
- Bukatze zenbatekoan akats argia dutenak.
- Agiri honetan 3. eranskin bezala xedatutako proposamen eredua nabarmenki aldatzen dutenak.

8.5.4. No se aceptarán aquellas proposiciones que:

- Tengan contradicciones mayores, omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta.
- No se ajusten a lo señalado en el pliego de prescripciones técnicas y en el pliego de cláusulas administrativas.
- Aquéllas que carezcan de concordancia con la documentación examinada y admitida.
- Excedan del tipo máximo de licitación.
- Comporten error manifiesto en el importe del remate.
- Las que varíen substancialmente el modelo de proposición establecido que figura como anexo 3 a este pliego.

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

- 2. dokumentuan ondoren ebaluatu beharreko dokumentazioa sartzen duten lizitatzaileak (3. dokumentuaren irekieran).

- Incorporen en el "documento 2" documentación que deba ser objeto de evaluación posterior (en la apertura del "documento 3").

8.5.5. Proposamena hainbat enpresak egiten badu eta horiek aldi baterako enpresen elkartean eratzeko konpromisoa badute, 2. eta 3. dokumentuak enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuko ditu.

8.5.5. Si la proposición la realizan varias empresas, con el compromiso de constituirse en Unión Temporal de Empresas, los documentos 2 y 3 deberán estar firmados por la persona representante de cada una de ellas.

8.6. Dokumentazio eta agiriei buruzko kontsultak

8.6.1. SPKLk 138.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Mankomunitateak interesdunei beranduenen eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 6 egun lehenago agiri eta gainerako dokumentazioari buruz eskatzen duten informazio osagarria eskuratuko die, betiere epea amaitu baino 12 egun lehenago eskatu badute.

8.6.2. Eskatutakoa baldintza teknikoen eta administrazio baldintza berezien agirietan edo gainerako dokumentazioan xedatutako zerbait argitzea bada, erantzunak lotesleak izango dira eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

8.6. Consultas sobre documentación y pliegos

8.6.1. Según lo establecido en el artículo 138.3 de la LCSP la Mancomunidad proporcionará a los interesados, a más tardar, 6 días antes de que finalice el plazo para la presentación de ofertas, aquella información adicional que soliciten sobre los pliegos y demás documentación, siempre que la hubieren pedido al menos 12 días antes de la finalización del plazo.

8.6.2. En el caso en que lo solicitado sean aclaraciones a lo establecido en los Pliegos de Prescripciones Técnicas, Administrativas Particulares o resto de documentación, las respuestas tendrán carácter vinculante y se harán públicas en el Perfil de Contratante.

9. PROPOSAMENAK IREKITZEA

9.1 Kontratazio mahaiak aldez aurretik **1. dokumentuaren** edukia aztertuko du, eta aurkeztutako adierazpena eta kaudimen teknikoko frogagiriak (10. C2) kalifikatuko ditu egintza pribatuan. Aurkeztutako dokumentazioan akats materialak antzematen baditu, pertsona edo enpresa interesdunei jakinaraziko dizkie eta gehienez hiru egun baliodun emango dizkie horiek zuzentzeko.

9.2 SPKLk 140. artikuluan aipatzen duen KEDB kalifikatu eta kaudimen teknikoari buruzko (10. C2) aurkeztutako dokumentazioan akatsak edo ahazteak zuzendu ondoren, HAKLAOk 11. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, hautespen irizpideak betetzen dituzten enpresak zehaztuko ditu eta lizitazioan onartutakoak, baztertutakoak eta baztertze arrazoiak berariaz adieraziko ditu.

9. APERTURA DE PROPOSICIONES

9.1 La mesa de contratación examinará con carácter previo el contenido del **documento 1** en acto privado y calificará la declaración y la documentación acreditativa de la solvencia técnica (10.C2) presentada. Si observara defectos materiales en la documentación presentada lo comunicará a personas o empresas interesadas y concederá un plazo no superior a tres días hábiles para su subsanación.

9.2 Una vez calificada la DEUC a que se refiere el artículo 140 de la LCSP y la documentación acreditativa de la solvencia técnica (10.C2), subsanados, en su caso, los defectos u omisiones de la documentación presentada, determinará las empresas que se ajustan a los criterios de selección de las mismas a que hace referencia el artículo 11 del RGLCAP, con pronunciamiento expreso sobre las admitidas a la licitación, las rechazadas y sobre las causas de su rechazo.

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

Eskatutako dokumenturen bat aurkezten ez bada edo eskatutakoarekiko modu desberdinean eginez gero, kontratazio mahaiak behin betiko ez du onartuko.

La no presentación de alguno de los documentos exigidos o su presentación en forma distinta a la requerida dará lugar a la no admisión definitiva por la mesa de contratación.

9.3. Behar bezala adierazitako tokian, egunean eta orduan, egintza pribatuan, **"2" dokumentuan** dauden proposamen teknikoak irekitzeari ekingo zaio. Kontratazio mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eska ditzake eta jasotzen diren balioztapen irizpideak kontuan hartuta ebaluatuko ditu proposamenak.

9.3. En el lugar, día y hora oportunamente señalados, en acto privado se procederá a la apertura de las proposiciones técnicas contenidas en el **documento "2**". La mesa de contratación podrá solicitar los informes técnicos que considere necesarios y evaluará las proposiciones mediante los criterios de valoración que se recogen.

Lizitazio-prozeduratik kanpo utziko dira 2. dokumentuan ondoren ebaluatu beharreko dokumentazioa sartzen duten lizitztzaileak (3. dokumentuaren irekieran).

Se excluirá del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que incorporen en el documento "2" documentación que deba ser objeto de evaluación posterior (en la apertura del documento "3").

Ebaluazio teknikoan («2. Dokumentua») plegu hauetako 8.4.1 apartatuan («Automatikoki ebaluatu ezin diren balorazio-irizpideak») jasotako gutxieneko puntuazioa gainditu ez duten proposamenak ebaluazio ekonomikoaren prozeduratik kanpo geratuko dira zuzenean, ulertzen baita dagokion proposamen teknikoa ez dela egin kontratazioaren xedeari buruzko behar adinako ezagutzarekin, eta, ondorioz, modu artifizialean alda lezakete beste proposamen batzuei esleitutako puntuazio ekonomikoa.

Las propuestas que en su evaluación técnica ("documento 2"), no hayan superado la puntuación mínima contemplada en los presentes pliegos en su apartado 8.4.1. Criterios de valoración no evaluables automáticamente, serán directamente excluidas del procedimiento de evaluación económica, por entenderse que la propuesta técnica correspondiente no se ha realizado con el suficiente conocimiento de causa sobre el objeto de contratación y, consecuentemente, podrían alterar de forma artificial la puntuación económica asignada a otras propuestas.

9.4. Kontratazio mahaiak, deitutako tokian, egunean eta orduan, egintza publikoan, iritziaren araberako irizpideei emandako haztapena aditzera emango du eta, ondoren, **"3" dokumentua**, automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa duena, irekiko du.

9.4. La mesa de contratación, en el lugar, día y hora en que se convoque, en acto público dará a conocer la ponderación asignada a los criterios dependientes de un juicio de valor, a lo que seguirá la apertura del **documento "3"** que contiene la documentación correspondiente a los criterios evaluables automáticamente.

9.5. Baldin eta susmatzen bada puntuazio onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza nabarmenki baxua dela 149. artikuluan aurreikusitako kasuak gertatzen direlako, mahaiak, aurreko jarduketak eginda, lizitatzaileari bere eskaintza justifikatzeko eskatuko dio gehienez ere 5 egun balioduneko epean, dagokion komunikazioa igortzen denetik kontatzen hasita.

9.5. En el caso de que la oferta del licitador que haya obtenido la mejor puntuación se presuma que es anormalmente baja por darse los supuestos previstos en el artículo 149, la mesa, realizadas las actuaciones anteriores, solicitará al licitador que justifique su oferta en plazo no superior a 5 días hábiles desde el envío de la correspondiente comunicación.

9.6. Azkenik, kontratazio mahaiak, SPKLk 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, goitik behera sailkatuta, kontratazio organoari aurkeztutako proposamenak azalaraziko dizkio, baztertu ez badira edo neurriz ala ohiz kanpo joak ez

9.6. Finalmente, la Mesa de Contratación, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 150 de la LCSP elevará al órgano de contratación, clasificadas por orden decreciente, las proposiciones presentadas y que no hayan sido

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

badaude. Horrekin batera akta eta esleipen proposamena ageriko dira.

excluidas o declaradas desproporcionadas o anormales, junto con el acta y la propuesta de adjudicación.

10. ESLEIPENAREN AURREKO ESKAKIZUNAK

10.1. Esleitu baino lehen, kontratazio organoak ekonomiaren ikuspegitik eskaintzarik abantailatsuena aurkeztu duen enpresa eskaintzaileari, errekerimendua egin eta biharamunetik zenbatzen hasita, hamar egun baliodunen buruan 8.3.1. puntuko justifikazio dokumentazioa aurkez dezan eta behin betiko bermea osa dezan eskatuko dio hurrengo puntuei erreparatuz:

10. OBLIGACIONES PREVIAS A LA ADJUDICACIÓN

10.1. El órgano de contratación, previamente a la adjudicación, procederá a requerir a la empresa licitadora que haya presentado la oferta económicamente más ventajosa para que, en el plazo de diez días hábiles contados desde el siguiente al requerimiento, presente la documentación justificativa del punto 8.3.1, así como que constituya la garantía definitiva siguiendo los puntos siguientes:

a) Jarduteko gaitasuna eta, bidezkoa bada, ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak:

Jarduteko gaitasuna SPKLk 84. artikuluan xedatutakoaren arabera, hurrengoen bidez egiaztatuko da:

- Enpresa banakoa bada, nortasun agiri nazionala edo zeregin bera duen dokumentua aurkeztu beharko du.
- Enpresa pertsona juridikoa bada, eratze edo aldaketa eskritura, merkataritza legeria aplikagarriarekin bat eska badaiteke, merkataritza erregistroan inskribatua, aurkeztuko du. Behar hori ez badago, jarduteko gaitasuna eratze-eskritura edo dokumentuarekin, estatutuekin ala fundazio egintzarekin ziurtatuko da. Nolanahi ere, horietan jarduera arautzeko manuak idatziz jasoak egongo dira eta dagokion erregistro ofizialean inskribatuak ageriko dira.

- Beste enpresa batzuen izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek NANaren edo zeregin bera duen dokumentuaren kopia aurkeztuko dute, baita xede horretarako ahalorde askietsia ere.

a) Documentos acreditativos de la capacidad de obrar y, en su caso, la representación:

La capacidad de obrar se acreditará según el artículo 84 de la LCSP mediante:

- Si la empresa fuera individual, mediante la presentación del Documento Nacional de Identidad o documento que haga sus veces.
- Si la empresa fuera persona jurídica, mediante la presentación de escritura de constitución o modificación inscrita en el Registro Mercantil, cuando este requisito fuese exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional, en su caso, en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro Oficial.
- Quienes comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otra empresa, presentaran copia del DNI, o documento que haga sus veces, así como poder bastante al efecto.

Eusko Jaurlaritzaren Kontratistei buruzko Erregistroan (12/1998 Dekretua, otsailaren 3koa, eta 1998ko otsailaren 4ko Agindua, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuarena) inskribatuak dauden enpresa eskatzaileek bakarrik indarreko ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute, erregistroko arduradunak egin ostean. Hala,

Las empresas licitadoras inscritas en el Registro de Contratistas del Gobierno Vasco, regulado por el Decreto 12/1998, de 3 de febrero, y Orden de 4 de febrero de 1998 del Consejero de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco, deberán presentar únicamente copia del certificado vigente expedido por la persona responsable del Registro correspondiente de tal

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

puntu honetan aipatzen diren dokumentuak eta egoerak ziurtatzez eta aurkeztez salbuetsiak egongo dira.

manera que estarán eximidas de tener que presentar y acreditar los documentos y circunstancias señalados en este punto.

Kontrataziorako Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek hautagai edo eskatzaileei justifikazio dokumentu guztiak edo horien zati bat aurkeztea eska diezaiekete, adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunari buruz arrazoizko zalantzak daudela uste dutenean eta prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa denean eta, nolanahi ere, kontratua esleitu baino lehen.

Los Servicios Técnicos de la Mancomunidad de contratación podrán pedir a los candidatos o licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.

Dena den, enpresaburua Sektore Publikoko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatua dagoenean edo enpresaren espediente birtual, dokumentuak elektronikoki gordetzeko sistema edo aldez aurretiko sailkapen sistema modura Europar Batasuneko estatu kide baten datu base nazionalean agertzen denean eta aipatu organoak doan sar daitezkeenean, ez ditu justifikazio dokumentuak edo dokumentu frogak aurkeztu beharko aipatu tokietan inskribatutako datuei dagokienez.

No obstante lo anterior, cuando el empresario esté inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y estos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares.

b) Ziurtagiriak: zerga eskakizunak eta Gizarte Segurantzari buruzkoak eguneratuak dituela adierazten duen ziurtagiria, HAKLAOk 13. eta 14. artikuluetan aurreikusitako irismen eta moduarekin. Halaber, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean jarduera ekonomikoen zergan alta emanda dagoela adierazten duen ziurtagiria, prospekzioen eta azterlan geologikoen zerbitzu teknikoena edo antzerakoa. Horretarako, alta aurkeztu beharko da, jarduneko ekitaldiari buruzkoa bada, edo historikoaren ziurtagiria, gainerako kasuetan.

b) Certificados de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de seguridad social, con el alcance y forma que previenen los artículos 13 y 14 del RGLCAP, así como el de estar de alta en el Impuesto de Actividades Económicas, en el epígrafe Servicios técnicos de prospecciones y estudios geológicos o similar, mediante la presentación del alta, si se refiere al ejercicio corriente, o el certificado del histórico I.A.E, en los demás casos.

Hala eta guztiz ere, eskaintzailea indarreko legeriak xedatzen duen salbuespenen batean badago, zergan alta egiaztatzearen eskakizuna betetzeaz gain, salbuespena eman zaiola egiaztatu beharko du eta, horretarako, zerga administrazio eskudunak berariaz ebatziko du. Nolanahi ere, hori izan ezean, zinpeko adierazpena egin beharko da eta salbuespenaren arrazoi zehatza azalduko da.

Ello no obstante, en el supuesto de encontrarse quien licita en alguna de las exenciones establecidas en la legislación vigente, además de la obligación de acreditar el alta en el impuesto, deberá acreditar la concesión de la exención mediante resolución expresa de la administración tributaria competente o, en su defecto, mediante declaración responsable en la que se indique la concreta causa de exención concurrente.

c) Kaudimena: kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko edo profesionala

c) Solvencia: será obligatorio acreditar la solvencia económico-financiera y técnica o

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

nahitaez egiaztatu beharko da. Horretarako, hurrengo puntuetan azaltzen diren bitartekoez baliatu beharko da.

profesional por los medios que figuran en el los siguientes puntos.

c.1) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa

Azkeneko hiru urteetan eskaintzailearen urteko negozio zifra aurkeztu beharko da eta amaituak dauden azkeneko hiru urteetatik negozio bolumenik handiena izan den urtea kontuan hartuta, gutxienez, gehieneko preziora iritsiko da, BEZik gabe.

Enpresa eskaintzailearen urteko negozio bolumena urteko kontuen bitartez egiaztatuko da, onartu eta merkataritza erregistroan gordailatu ostean, enpresa aipatu erregistroan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatu behar diren erregistro ofizialean gordailatu ondoren. Banako enpresek, merkataritza erregistroan inskribatuak ez daudenek, urteko negozioen bolumena merkataritza erregistroan legeztatutako urteko kontuen eta inbentarioen liburuen bidez ziurtatuko dituzte.

c.1) Solvencia económica y financiera:

Se deberá presentar la cifra anual de negocios del licitador en los últimos tres años, que referido al año de mayor volumen de negocio de los tres últimos concluidos deberá ser al menos el precio máximo sin IVA.

El volumen anual de negocios de la empresa licitadora se acreditará por medio de sus cuentas anuales aprobadas y depositadas en el Registro Mercantil, si la empresa estuviera inscrito en dicho registro, y en caso contrario por las depositadas en el registro oficial en que deba estar inscrito. Las empresas individuales no inscritas en el Registro Mercantil acreditarán su volumen anual de negocios mediante sus libros de inventarios y cuentas anuales legalizados por el Registro Mercantil.

c.2) Kaudimen teknikoa

Ez da onartuko kaudimen teknikoa egiaztatzea enpresa lizitatzailea bera ez den beste erakunde batzuen bitartekoen bidez.

Kaudimen teknikoa egiaztatzeko, honako bide hauetako bakoitza bete beharko da:

a) ISO 14001 edo EMAS ingurumen-ziurtagiria izatea, eta horren aplikazio-eremuak ingenieritza-zerbitzuak barne hartzea.

b) Zehaztutako zerbitzu-prestazioa: erakunde lizitatzaileak kontratuaren xede den lanaren izaera bereko edo antzeko lan bat egin izana, gutxienez, azken 3 urteetan. Azken hiru urteetan egindako zerbitzutzat hartuko dira gutxienez epearen erdia aldi horretan bete dutenak.

Hori egiaztatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

Azken hiru urteetan egindako lanik nabarmenenak edo emandako zerbitzurik aipagarrienak, zerbitzu edo lan horien

c.2) Solvencia técnica

No se admitirá la acreditación de la solvencia técnica a través de medios de otras entidades que no sea la propia empresa licitadora.

Se acreditará mediante el cumplimiento de todos y cada uno de los siguientes medios:

a) Estar en posesión de la certificación medioambiental ISO 14001 o EMAS cuyo campo de aplicación incluya los servicios de ingeniería.

b) Prestación de servicios del tipo especificado: La entidad licitadora deberá haber realizado un mínimo un (1) trabajo de igual o similar naturaleza que el que constituye el objeto del contrato como máximo en los 3 últimos años. Se considerarán servicios realizados en los últimos tres años aquéllos de los que al menos la mitad de su plazo se haya ejecutado en dicho período.

Para su acreditación deberá aportar la siguiente documentación:

Relación de los principales servicios o trabajos realizados en los últimos tres años que incluya importes, fechas y el destinatario, público o privado, de los mismos. Se mencionarán

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko zein pribatuak ere aipatuta. Lehiaketa honen xedearekin zerikusia duten lanak bakarrik aipatuko dira, hau da, honelakoak:

- Geosintetikoak biogasaren desgasifikazio aktiboa (xurgapen bidezko behartua) duten hondakin ez-arriskutsuen zabortegietan instalatzeko zigilatze-obren eta kalitate-kontrolaren zuzendaritza fakultatiboa.

Egindako zerbitzuak organo eskudunak emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira edo, hartzailea subjektu pribatua bada, horrek emandako ziurtagiriaren bidez.

San Marko Mankomunitateak beretzat gordetzen du emandako informazioa aztertzeko eta alderatzeko eskubidea, baldin eta informazio hori ez bada ematen gaian eskumena duen organoak emandako ziurtagiriaren bidez.

Ez dira kontuan hartuko desgasifikatu gabeko edo desgasifikazio pasiboko industria-hondakinen zabortegietan edo zabortegietan egindako zerbitzuak.

Baztertu egingo dira Kalitate Kontroleko Zigilatze Lanen Zuzendaritza Fakultatiboaren lan batean, gutxienez, eskatzen den kaudimena egiaztatzen ez duten enpresen eskaintzak, biogasaren desgasifikazio aktiboa (xurgapen bidezko behartua) duten hondakin ez-arriskutsuen zabortegietan geosintetikoen instalazioa zigilatzeko.

c) Eusko Jaurlaritzak lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakunde gisa egiaztatzea, erakunde horiek egiaztatzeko sistema ezartzen duen urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan ezarritakoaren esparruan.

d) ILE I. mailako akreditazioa, Zuzendaritza Fakultatiboaren Ingurumen Aholkularitzarako, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuaren arabera (212/2012 Dekretua, urriaren 16koa, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroa sortzen duena)

únicamente aquellos trabajos relacionados con el objeto de este concurso, es decir:

- Dirección Facultativa de Obras de sellado y Control de Calidad de Instalación de Geosintéticos en vertederos de residuos no peligrosos con desgasificación activa (forzada por aspiración) de biogás.

Los servicios efectuados se acreditarán mediante certificados expedidos por el órgano competente o, cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante elcertificado expedido por éste.

La Mancomunidad de San Marcos se reserva el derecho de chequear y confrontar la información proporcionada cuando ésta no sea emitida a través de certificado emitido por el órgano competente en la materia.

No se considerarán los servicios realizados en vertederos de residuos industriales y/o vertederos sin desgasificación o con desgasificación pasiva.

Serán rechazadas aquellas ofertas de empresas que no acrediten la solvencia exigida en un mínimo de un (1) trabajo de Dirección Facultativa de Obras de sellado con Control de Calidad de Instalación de Geosintéticos en vertederos de residuos no peligrosos con desgasificación activa (forzada por aspiración) de biogás.

c) Acreditación por Gobierno Vasco como Entidad de investigación y recuperación de la calidad del suelo en el marco de lo establecido en el Decreto 199/2006, de 10 de octubre, por el que se establece el sistema de acreditación de dichas entidades.

d) Acreditación ECA Nivel I para la Asesoría Ambiental de la Dirección Facultativa, conforme al Decreto 212/2012, de 16 de octubre, por el que se regulan las entidades de colaboración ambiental y se crea el Registro de Entidades de Colaboración Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

e)ILE akreditazioa, II maila, 7.1.2. irismenarekin. Kontrolak IBIan jarduten den bitartean.

e) Acreditación ECA Nivel II con alcance 7.1.2. Controles durante el ejercicio de actividad en AAI.

f) Gutxieneko Teknikariak: plegu honetan lizitatzen diren lanak gauzatzeko, ezinbestekoa izango da plantillan talde tekniko espezializatu bat izatea eta kontratua gauzatzeko adskribatzea. Talde tekniko espezializatu horrek, gutxienez, profil eta esperientzia hauek izango ditu:

- Ingeniaria, geologoa edo goi-mailako tituluduna, zabortegien arloan gaitasun profesional aitortuak dituena eta gutxienez bost (5) urteko esperientzia duena obra-zuzendaritzetan eta zabortegiak zigilatzeko eta iragazgaizteko obren kontrolean.

- Erdi-mailako teknikaria, gaitasun profesionalak dituena zabortegietan, eta esperientzia duena zabortegiak iragazgaizteko eta/edo zigilatzeko obretan, gutxienez bost (5) urtekoa, geosintetikoen instalazioaren kalitate-kontrolaren arlo zehatzean.

- Teknikari ikuskatzaile kualifikatua, gutxienez bi (2) urteko esperientzia duena obra-oineko kontrolean, eta geosintetikoen kontrolaren ikuskaritza-lanetan dedikazio osoa duena.

f) Personal técnico mínimo: para la ejecución de los trabajos que se licitan en este pliego, será imprescindible disponer en plantilla y adscribir a la ejecución del contrato un equipo técnico especializado compuesto al menos por los siguientes perfiles y experiencia:

- Ingeniero/a, Geólogo/a o Titulado Superior con competencias profesionales reconocidas en materia de vertederos y experiencia mínima de cinco (5) años en direcciones de obra y control de obras de sellado e impermeabilización de vertederos.

- Técnico/a medio/a con competencias profesionales en materia de vertederos y experiencia en obras de impermeabilización y/o sellado de vertederos de al menos cinco (5) años en el campo concreto del control de calidad de instalación de geosintéticos.

- Técnico/a Inspector/a Cualificado/a con dos (2) años de experiencia mínima en control a pie de obra y con total dedicación a la labor de inspección de control de geosintéticos.

Ikasketa-tituluak eta lanbide-tituluak aurkeztuko dira, bai eta gutxieneko taldea osatzen duten pertsonen CVa ere.

Se aportarán los títulos académicos y profesionales así como el C.V. de las personas integrantes del equipo mínimo.

San Marko Mankomunitateak beretzat gordetzen du emandako informazioa alderatzeko eskubidea, aurkeztutako ziurtagirietan oinarrituta eskaintzak onartzeari dagokionez.

La Mancomunidad de San Marcos se reserva el derecho de confrontar la información proporcionada a efectos de admisión de ofertas en base a los certificados aportados.

d) 50 langile edo hortik gorako langileen enpresak: %33 edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen %2-ko erreserba kuota betetzen dutela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Bestela, modu ordezkatzaile edo osagarrian har

d) Empresas de 50 o más personas trabajadoras: deberán aportar documentación acreditativa del cumplimiento de la cuota de reserva del 2% de puestos de trabajo a personas con discapacidad igual o superior al 33 %, o complementaria o subsidiariamente del

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

daitezkeen hautazko neurriak bete beharko dituzte. Izan ere, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko legearen testu bategina onartzen duenak, eta bere garapen arautegiak xedatutakoarekin bat, horretara behartuak daude.

cumplimiento de las medidas que alternativamente puedan adoptarse, ya que están obligados a ello de acuerdo con lo previsto en el Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de Derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, así como en su normativa de desarrollo.

Xede horrez, enpresaren ziurtagiria aurkeztuko da eta bertan idatziz jasoak utziko dira, batetik, enpresan langileen kopuru orokorra eta, bestetik, desgaitasuna duen langileen kopuru berezia. Legez aurreikusitako hautazko neurriak betetzea aukeratu bada, salbuespenari buruzko adierazpenaren kopia erantsiko da. Horri eskaintzailearen adierazpena gehituko zaio, helburu horrekin aplikatzen diren neurri zehatzak dituelarik.

A tales efectos se aportará un certificado de la empresa en que conste tanto el número global de personas trabajadoras de plantilla como el número particular de personas trabajadoras con discapacidad, o en el caso de haberse optado por el cumplimiento de las medidas alternativas legalmente previstas, una copia de la declaración de excepcionalidad y una declaración del licitador con las concretas medidas a tal efecto aplicadas.

e) Guztizko esleipenaren balioari, BEZ gabe eta luzapenik gabeko hasierako iraupenari dagokion % **5eko behin betiko bermea egiaztatzea.**

e) Acreditación de la garantía definitiva del 5% del valor de adjudicación total sin IVA, para la duración inicial del contrato sin prórrogas.

Behin betiko bermea SPKLk 108. artikuluan xedatutako edozein modu erabiliz osa daiteke, HAKLAOk 55. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen dituen baldintzekin.

La garantía definitiva, podrán constituirse en cualquiera de las formas establecidas en el artículo 108 de la LCSP, con los requisitos establecidos en el artículo 55 y siguientes del RGLCAP.

Behin betiko bermeak SPKLk 110. artikuluan aipatzen dituen kontzeptuei erantzungo die.

La garantía definitiva responderá de los conceptos mencionados en el artículo 110 de la LCSP.

f) Espainiakoak ez diren enpresek, gainera, 4. eranskineko dokumentazioa erantsiko dute.

f) Las empresas no españolas, deberán, además, aportar la documentación del anexo 4.

g) Esleipendunak **erantzukizun zibilaren asegurua** (ingurumen kalteak barne) kontratatu beharko du eta zenbatekoa 600.000 eurokoa edo hortik gorakoa izango da. Izan ere, kontratuaren xede den jardueraren ondorioz hirugarren pertsonei edo ondasunei eragin diezazkiekeen kalteen inguruan kalte-ordainaren arriskua estaliko du, asaldatutako ingurunea konpondu eta berreskuratzeko kostuekin batera. Esleipendunak San Markoko Mankomunitateari kontratatutako aseguruari buruzko baldintza orokorren, berezien eta espezifikoen kopia bidaliko dio, betiere kontratua gauzatzen hasi baino lehen.

g) El adjudicatario deberá contratar un **seguro de responsabilidad civil** por importe igual o superior a 600.000€ que cubrirá el riesgo de indemnización por los posibles daños causados a terceras personas o a sus bienes y los costes de reparación y recuperación del medio alterado, derivados de la actividad objeto del concurso. El adjudicatario deberá remitir a la mancomunidad de San Marcos, una copia de las condiciones generales, particulares y específicas que configuran el seguro contratado, siempre antes del inicio de la ejecución del contrato.

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

Horrez gain, polizaren ordainagiria aurkeztuko da. Urtero San Markoko Mankomunitateari erantzukizun zibilaren asegurua eguneratua dagoela egiaztatzen duen dokumentua bidaliko zaio eta, gainera, aseguruaren baldintza orokorretan, berezietan eta espezifikoetan edozein aldaketa badago, Mankomunitatea bera jakinaren gainean egongo da.

Junto a ello, deberá presentarse acreditación de haber abonado la citada póliza. Anualmente deberá remitir a la mancomunidad de San Marcos el documento acreditativo de la actualización del seguro de responsabilidad civil así como comunicar a la mancomunidad cualquier variación que se produzca en las condiciones generales, particulares y específicas que configuran el seguro.

Azkenik, gainerako aseguru guztiak indarrean izango dituzte eta eskatuz gero, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei emango dizkiete.

Deberán además, tener todos los demás seguros en vigor y facilitarlos al servicio técnico de la mancomunidad en caso de requerirlos.

h) Bidezkoa bada, enpresa eskaintzaileak **azpikontratatzea aurreikusia** duen kontratuaren zatiari buruzko adierazpena. Ehunekoa eta enpresaren izena edo bere profila azalduko dira, baina, horretarako, azpikontratisten gaitasun profesional edo teknikoaren inguruko baldintzen inguruan azalak 24. atalean utzi behar du (SPKL, 215.2.a) artikulua).

h) Declaración relativa a la parte del contrato que la empresa licitadora **tenga previsto subcontratar**, en su caso, señalando su porcentaje y el nombre o el perfil empresarial, si así lo permite el apartado 25 de la carátula, definido con referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de los subcontratistas a los que vaya a encomendar su realización (artículo 215.2.a) LCSP).

i) Emakumeen eta gizonen **berdintasunerako plan bat** baduela egiaztatzen duen agiria aurkeztea, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007ko Lege Organikoarenaren 45. artikuluarekin bat, enpresak 50 langile baino gehiago dituenean.

i) La presentación de la documentación justificativa de contar con un **plan de igualdad** en aplicación de lo dispuesto en el artículo 45 de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, cuando se trate de empresas de más de 50 trabajadores o trabajadoras.

10.2 Ziurtagiriak bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz egin daitezke.

10.2 Los correspondientes certificados podrán ser expedidos por medios electrónicos, informáticos o telemáticos.

10.3 Aipatu epean errekerimendua behar bezala betetzen ez bada, enpresa eskaintzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da eta, halakoetan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo eskaintzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordena kontuan hartuta.

10.3 De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la empresa licitadora ha retirado su oferta, procediéndose en ese caso a recabar la misma documentación a la licitadora siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.

10.4. Era berean, lizitatzaileak aurreko puntuko dokumenturen bat aurrez aurkeztu izan balu, justifikatu ahalko du Mankomunitatean baduela agiria, azalduz ze prozeduretan aurkeztu zuen, eta adierazpena eginez, ez dela egoera aldatu.

10.4. Asimismo si la empresa ya hubiera aportado alguna documentación exigida en el punto anterior, podrá justificar que la Mancomunidad dispone de esa documentación, indicando el procedimiento donde se encuentre, y declarará no haberse variado las condiciones de la misma.

11. KONTRATUA ESLEITZEA

11. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

11.1. Administrazioak ausaz esleipen irizpideekin bat kontratua eskaintzarik onenari esleitzeko ahalmena ala agirietan agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik ez badago, lizitazioa hutsik aitortzeko gaitasuna du.

11.1. La Administración tendrá alternativamente la facultad de adjudicar el contrato a la mejor oferta de conformidad con los criterios de adjudicación o declarar desierta la licitación, cuando no exista oferta o proposición alguna que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en los pliegos.

11.2. Hala eta guztiz ere, SPKLk 152. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, administrazioak, kontratua formalizatu baino lehen, interes publikoko arrazoiak direla-eta, esleitzeari uko egin diezaioke edo izapidetutako prozedura bertan behera utz dezake, akats konponezinak dituenean. Nolanahi ere, bi kasuetan enpresa eskaintzaileei ordaindu beharko zaie. Mankomunitateak uko egin edo atzera egiten badu, gehienez ere, sorturiko gastuengatik 1.000 eurotan konpentsatuko da.

11.2. No obstante, en los términos previstos en el artículo 152 de la LCSP, la Administración, antes de formalización del contrato, podrá renunciar a adjudicarlo por razones de interés público, o desistir del procedimiento tramitado, cuando éste adolezca de defectos no subsanables, debiendo compensar a las empresas licitadoras en ambos casos. En caso de renuncia o desistimiento de la adjudicación por parte de la mancomunidad se compensarán los gastos en que hubiesen incurrido con un máximo de 1.000€.

11.3. Zenbakiz balioztapen bera badute, kontratuak esleitzean lehentasuna izango dute honako proposamenek: gaitasun teknikoa egiaztatzean, enpresan langileen %2tik gora talde gutxietsien barruan badago, 329/2003 Dekretuak, abenduaren 23koak, Eusko Jaurlaritzarenak, xedatutakoaren arabera. Horretarako, betiere aipatu proposamenek beren baldintzetan esleitzeko oinarri bezala erabili behar diren irizpideen ikuspegitik abantailatsuenak berdindu beharko dituzte.

11.3. Tendrán preferencia en la adjudicación, en caso de valoración numérica idéntica, de los contratos las proposiciones presentadas por aquellas empresas que, en el momento de acreditar su solvencia técnica, tengan en su plantilla un número de trabajadores pertenecientes a colectivos desfavorecidos que se recogen en el Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, del Gobierno Vasco, superior al 2%, siempre que dichas proposiciones igualen en sus términos a las más ventajosas desde el punto de vista de los criterios que sirvan de base para la adjudicación.

11.4. Esleipena arrazoituko da eta enpresa hautagai edo eskaintzaileei jakinaraziko zaie.

11.4. La adjudicación deberá ser motivada y se notificará a las empresas candidatas o licitadoras.

Jakinarazpena lizitazio elektronikoko plataforma bidez egingo da.

La notificación se hará a través de la plataforma de licitación electrónica.

Izapideak jakinarazteko, eskaintzaileek emandako helbide elektronikoa erabiliko da.

Para las notificaciones de trámite, se utilizara el correo electrónico aportado por los licitadores.

III – KONTRATUA FORMALIZATZEA

III.-.FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

12. KONTRATUA FORMALIZATZEA

12. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

12.1. Kontratua formalizazioarekin burutuko da, SPKLk 153. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

12.1. El Contrato se perfecciona con su formalización según lo establecido en el artículo 153 y siguientes de la LCSP.

12.2. Kontratua administrazio dokumentuan formalizatuko da eta zorrozki beteko ditu lizitazioaren baldintzak. Ildo horri eutsiz, dokumentu hori edozein erregistro publikora

12.2. El contrato deberá formalizarse en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

iristeko nahikoa titulu izango da. Hala eta guztiz ere, pertsona edo enpresa esleipendunak kontratua eskritura publiko bihurtzea eska dezake eta bere kontura izango dira horren ondorioz sortutako gastuak. Kontratua formalizatzen duen dokumentuan ez dira inolaz ere onartuko klausulak, esleipenaren baldintzak aldatzen badituzte.

para acceder a cualquier registro público. No obstante, la persona o empresa adjudicataria podrá solicitar que el Contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En ningún caso se podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación.

12.3. SPKLk 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratuari kontratazioaren arloan errekurtso berezia jar dakiokeenez, enpresa eskaintzaile eta hautagaiei jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost (15) egun baliodun igaro baino lehen ezingo da formalizatu.

12.3. Como el contrato es susceptible de recurso especial en materia de contratación conforme al artículo 44 de la LCSP, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince (15) días hábiles desde que se remita la notificación a las empresas licitadoras y candidatas.

Kontratazio organoaren mendeko zerbitzuek errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita gehienez bost (5) egunetan kontratua formalizatzeko deituko diote pertsona edo enpresa esleipendunari. Xede horrez, lehenik eta behin errekurtsoa jarri gabe aurreko paragrafoan aurreikusitako epeak igaro behar du, errekurtsoak kontratua formalizatzea eteten baitu. Modu berean arituko da errekurtsoa ebazteko organo eskudunak etenaldia altxatzen duenean.

Los servicios dependientes del órgano de contratación requerirá a la persona o empresa adjudicataria para que formalice el Contrato en plazo no superior a cinco (5) días a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso hubiera levantado la suspensión.

12.4. Enpresa esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik adierazitako epearen barruan kontratua ez bada formalizatu, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZa barne, zehapen kontzeptupean eta lehenengo behin betiko bermearekin ordainduko da. Halakoetan, kontratua hurrengo eskaintzaileari esleituko zaio, eskaintzen sailkapen ordena kontuan hartuta.

12.4. Cuando por causas imputables a la empresa adjudicataria no se hubiese formalizado el Contrato dentro del plazo indicado, se le exigirá el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva. En este caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egozten bazaizkio, esleipendunari atzerapenak sortzen dizkion kalte-galerengatik kalte-ordaina emango zaio.

Si las causas de la no formalización fueren imputables a la administración, se indemnizará al adjudicatario de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.

Ezingo da kontratua gauzatzen hasi aldez aurretik formalizatu gabe.

No podrá iniciarse la ejecución del Contrato sin su previa formalización.

IV - GAUZATZEA

IV - EJECUCIÓN

13. KONTRATUA BETETZEA ETA BERME-ALDIA

13. CUMPLIMIENTO DEL CONTRATO Y PLAZO DE GARANTÍA

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

13.1. Kontratua betetzat joko da zerbitzuak eskaintzen dituen enpresak eskainitako baldintzetan zerbitzuaren xedea bete duenean.

13.1. El Contrato se entenderá cumplido cuando la empresa prestadora de servicios haya cumplido el objeto del servicio en las condiciones por ella ofertadas.

13.2. Enpresa kontratistaren ardura da garatzen dituen lanen eta egindako zerbitzu nahiz prestazioen kalitate tekniko. Halaber, bere erantzukizunpekoak dira kontratua gauzatzean ahazte, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrengatik administrazio kontratugileak edo hirugarrenek izan ditzakeen ondorioak.

13.2. La empresa contratista será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la administración contratante o para terceras personas de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.

Enpresa kontratistak, zerbitzua edo prestazioa egiteko, halabeharrez kontratuan hitzartzen diren epeetan behar bezala gauzatzeko taldea eta bitarteko osagarriak eskuratu beharko ditu.

La empresa contratista queda obligada a aportar, para la realización del servicio o prestación, el equipo y medios auxiliares que sean precisos para la buena ejecución de aquél en los plazos convenidos en el contrato.

Administrazio kontratugileak desegokitzat jotzen duen edozein elementu bazter dezake eta idatziz egindako jakinarazpenetik zenbatzen hasita hamar egunetan pertsona edo enpresa esleipendunak ebazpenaren aurka administrazioaren aurrean erreklamatzeko eskubidea du.

La administración contratante podrá rechazar también cualquier elemento que considere inadecuado, con el derecho de la persona o empresa adjudicataria, a reclamar frente a tal resolución ante la administración en el plazo de diez días, contados a partir de la notificación que se le haga por escrito.

Aurrekoari eutsiz, pertsona edo enpresa esleipendunak bere betebeharrei erantzuteko langileak kontratatu beharko ditu. Langileak esklusiboki pertsona edo enpresa esleipendunaren mendekoak izango dira, berak izango baititu ugazabaren kalitateari atxikitako eskubideak eta beharrak eta bere kargura dituen langileei buruz lanaren, lanean segurtasun eta osasunaren arloan indarreko xedapenak bete beharko ditu.

A este respecto, la persona o empresa adjudicataria deberá contratar el personal necesario para atender a sus obligaciones. Dicho personal dependerá exclusivamente de la persona o empresa adjudicataria, por cuanto será ésta la que tendrá los derechos y obligaciones inherentes a su calidad de patrono o patrona y deberá cumplir las disposiciones vigentes en materia laboral, de seguridad y salud en el trabajo, referidas al propio personal a su cargo.

13.3. Zerbitzuak zuzendu eta ikuskatzea mankomunitatearen zerbitzu teknikoei dagokie. Ildo horri jarraiki, argibideak eman ditzake, betiere prestazioan baimendu gabeko aldaketak ez badira edo indarreko xedapenen ala agiri honen aurka ez badoaz.

13.3. La dirección e inspección de los servicios corresponde a los servicios técnicos de la mancomunidad, quien podrá dar instrucciones, siempre que no supongan modificaciones de la prestación no autorizadas, ni se opongan a las disposiciones en vigor ni al presente pliego.

13.4. 3/2004 Legeak, merkataritzako eragiketen berankortasunaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituena, eta egon daitezkeen aldaketen arabera, kontratistak hornitzaileei eta azpikontratei garaiz ordaindu beharko die, bestela arau-hauste larritzat joko da.

13.4. El contratista deberá cumplir los plazos de pago a todos sus proveedores y subcontratas según lo dispuesto en la Ley 3/2004 por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, estos incumplimientos se considerarán faltas graves.

ESKU2b85964e-ef87-4fd2-8440-53365120f8d1

14. INGURUMENAREN, LANAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA LANEAN SEGURTASUN NAHIZ OSASUNAREN ARLOAN ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

14.1. Enpresa kontratistak indarreko xedapen guztiak bete beharko ditu honako eremuetan: ingurumena, lana, gizarte segurantza eta lanean segurtasun nahiz osasuna. Beraz, bere erantzukizun esklusiboa da lan istripuei buruzko guztia. Enpresa kontratistak ez badu betetzen, erakunde kontratugileak ez du ardurarik izango.

Enpresa edo erakunde esleipendunak kontratazio organoaren aurrean betebeharrak egiaztatzeko, enpresa edo erakunde kontratistak gutxienez gizarte segurantzari dagozkion kotizazioaren eskakizunak betetzen dituela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztuko du, kontratua gauzatzera lotu diren pertsonen kontratu formalizatuekin batera. Horrez gain, lanean segurtasun eta osasunari buruz honako dokumentazioa gehituko du: lan arriskuak prebenitzeko plana, lanean segurtasun eta osasunerako arriskuen ebaluazioa eta prebentzio jardueraren plangintza.

Halaber, Mankomunitateak TC1, TC2 ziurtagiriak, Altan dauden Langileen Txostenak (edo baliokideak) eskatuko ditu, atxikitako langileen egoera egiaztatzeko eta eskatutako baldintzak eta eskaintzetan azaldurikoak betetzen dituztela egiaztatzeko.

14.2. Aurreko atalean aurreikusitakoari erreparatuz, enpresa edo erakunde esleipendunak azpikontratatuak dituen enpresei aipatu eskakizunak betetzea eskatuko die. Xede horrez, erakunde kontratugileak eskatzen badu, enpresa edo erakunde esleipendunak azpikontratatutako enpresak edo erakundeak eskakizunak betetzen dituela egiaztatu beharko du.

14.3. Enpresa esleipendunaren betebeharra da kontratua gauzatzen duten langileen artean gutxienez lan kontratuko langileen % 60 mugagabeak edo gizarte ekonomiako enpresen kasuan bazkide langileak izatea, betiere kontratuaren egoerek ahalbidetzen dutenean.

14. OBLIGACIONES DE LA EMPRESA CONTRATISTA EN MATERIA MEDIO AMBIENTAL, LABORAL, DE SEGURIDAD SOCIAL Y DE SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO

14.1. La empresa contratista deberá cumplir todas las disposiciones vigentes en materia medioambiental, laboral, de seguridad social y de seguridad y salud en el trabajo, siendo de su exclusiva responsabilidad todo lo referente a accidentes de trabajo. El incumplimiento por parte de la empresa contratista no implicará responsabilidad alguna para la entidad contratante.

A efectos de que la empresa o entidad adjudicataria acredite las obligaciones citadas ante el órgano de contratación, la empresa o entidad contratista deberá, al menos, aportar la documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones de cotización a la seguridad social y de formalización de los contratos de las personas trabajadoras vinculadas a la ejecución del contrato, así como de elaboración de la siguiente documentación relativa a la seguridad y salud en el trabajo: el plan de prevención de riesgos laborales, la evaluación de los riesgos para la seguridad y la salud en el trabajo, la planificación de la actividad preventiva.

Asimismo, la mancomunidad solicitará certificados TC1, TC2, Informes de Trabajadores en Alta (o equivalentes) para verificar la situación de los trabajadores adscritos y que cumplen las condiciones exigidas y propuestas en las ofertas.

